

ZERAINGO HERRI BATZARRA

Txosten honek 2018ko urtarrilaren 28an egindako Herri Batzarrean Udalak emandako informazioa jasotzen du.



ZERAINGO HERRI BATZARRA	1
1. Sarrera	2
2. Udal Kudeaketa	2
Udalaren balorazioa	2
2018ko aurrekontua	5
2017ko diru laguntzak	8
3. Batzordeen berri	9
3.1 Herri Bizitza	9
3.2 Zerbitzuak, azpiegiturak, ingurumena eta hirigintza	14
3.3 Tokiko Garapena	22



1. Sarrera

- Agintaldiko zortzigarren Herri Batzarra, aurtengo lehenengoa.
- Bilera hau baliatuko dugu batez ere 2018ko udalaren aurrekontua aurkezteko eta baita ere bigarren urteko udalaren balorazioaren emaitzak emateko. Azarotik urtarrila bitartean batzordeetan egindakoaren berri eman dugu.
- Gaurko informazioarekin egingo dugun txostena ohi bezala laster jasoko duzue buzoietan.

2. Udal Kudeaketa

2.1 Udalaren balorazioa

Aurten ere herritarrek udalaren bigarren urtea zuzenean baloratzeko aukera izan dute. 2017ko urrian zehar egin dugun balorazioan. Herrian erroldatuta dauden 16 urtetik gorako zeraindar guztiak jaso dute inkesta. Ondoren ikusiko duzue balorazioak utzi diguna:

	Guztira	E	G	Ez dakigu	16-30 urte	31-50 urte	51-65 urte	65 baino gehiago	Ez dakigu
1. urtea	77	35	37	5	8	25	23	20	1
2. urtea	77	39	33	5	12	24	23	17	1

Oharra: 6 inkesta (%7,7) dena gaizki baloratuta ageri dira eta inkestako orri osoa udalaren kontrako iritziz, aurreiritzi, epaiez edota irainez, beteta daude. Inkesta horiek ere kontuan hartuak izan dira.

UDAL TALDEA

Udal taldea lanean eta inplikaturik dabil?

%61 balorazio positiboa

%56 oso ondo/bikain baloratu du

%33 gutxi baloratu du



Udal taldearengana jo dudanean gertutasunez entzun dit eta laguntzen saiatu da?

% 19ak ez du taldearengana jo, “ez dut beharrik izan” (7 pertsona)

Beharra izan dutenen artetik % 67ak balorazio positiboa, % 62ak oso ondo / bikain baloratu du.

%33ak gutxi baloratu du:

komentario orokorrak (10)

“oztopoak eta trabak izan ditut”(3)

“ez dute entzuten” (1)

“ez dut taldea nire sentitzen” (1)

INFORMAZIOA ETA GARDENTASUNA

Udaleko informazioaren berri izan dut:

%69 balorazio positiboa: % 61ak oso ondo / bikain baloratu du.

%15ak nahiko informazioa jasotzen duela baloratu du.

%16ak informazio gutxi jasotzen duela baloratu du.

Nola (gehiengotik gutxiengora):

Txosten idatzien bidez

Herri batzarrak

Xagu Artean

Ahoz aho

Batzorde eta bilerak

Besterik

BILERETAN PARTE HARTZEA

Bileretan parte hartu dut:

%71k bileretan parte hartu du (aurreko urtean baino %10 gehiago):

%45ak 1-3 bilera artean

%27ak 4-6 bilera artean

%29ak 7 tik aurrera



Zergatik ez duzu parte hartu:

- Herriko giro txarra
- Informatiboak dira
- Ez dira baliagarriak (2 pertsona)
- Ez dira erabakigarriak
- Azken aldian ez naiz inguruan ibili
- Informatuta nago eta ez dut beharrik
- Ez dut bileretara joatea atsegin
- Konfiantza daukat

Bileretan parte hartu dutenen ekarpenak:

- Orain arte bezala jarraitu
- Modu demokratikoan egitea bilerak (3)
- Eraginkorrak izatea
- Denen iritzia errespetatu
- Erabakitzeko aukera (2)
- Alkatea liberatua beharko luke

EGINDAKO PROIEKTUAK

Proiektu guztiek bataz besteko 3,3 eta 3,6 arteko puntuazioa lortu dute 5etik. Ondo eta oso ondo artean.

Hoberen baloratutakoa:

mediku kontsulta berria

kaskoko seinalizazioa

Ondoren:

- Zeraintzen disolbatu
- Liburutegia egokitu
- Kultur Etxea galdara berria eta irisgarritasuna
- Lur mugen eguneraketa



EGINDAKO EKIMENAK

Ekimen guztiek bataz besteko 3,4 eta 3,6 arteko puntuazioa lortu dute Setik. Ondo eta oso ondo artean.

Hoberen baloratutakoak:

Jubilatuen irteerak - Jubilatuen egunak - Azoka ekologikoa - Korrika

Ondoren:

- Sanjoanak
- Kultur Astea eta San Isidro bazkaria

HURRENGO URTERAKO EKARPENAK

- Mugikortasun gutxi dutenentzat paseoa zero kotakoa (aldaparik gabe, ordu betekoa).
- Batzordeetako kideak anitzagoak izatea.
- Plazan aparkaleku gehiago egotea.
- Herriko egitura estruktural guztiak margotu.
- Festetako musika hobetu.
- Plazako piboteak asteburuan jaitsi mezetarako eta bestela ere.
- Elkar bizitzeko prozesua eguneroko gobernantzatik hasi, denok berdin tratatuz.
- Segura-Zerain oinezko bidea Segurararte bukatu, Segurako Udalarekin harremanetan jarriz.
- Aizpeako ubideak konpondu.
- Herri kaskoan ardiek uzten dituzten kakei soluzio bat eman Udalaren eta artzainen artean.

2.2 2018ko aurrekontua

Hurrengo taula eta grafikoetan 2018ko aurrekontua aurkezten dugu, aurreko urtekoarekin alderatuta.

SARRERAK	2017		2018	
	AURREKONTUA	%	AURREKONTUA	%
IBILGAILUEN-ONDASUNAK	68.750,00 €	11,42%	70.750,00 €	16,25%
OBRAKO ZERGAK	5.000,00 €	0,83%	7.000,00 €	1,61%
TASAK (ZABORRA-FRONTIOIA)	25.600,00 €	4,25%	27.250,00 €	6,26%
FORU FUNTSA eta BESTE BATZUK	250.543,00 €	41,61%	250.543,00 €	57,55%
MANDIO eta OSTATUKO RENTAK	6.800,00 €	1,13%	6.800,00 €	1,56%
SARRERA FINKOAK	356.693,00 €	59,25%	362.343,00 €	83,23%
E.J.: KARTZELAKO BERRITZEA	2.422,00 €	0,40%		0,00%
E.J.: BIODIBERSITATAEA	28.000,00 €	4,65%	22.000,00 €	5,05%
FORU ALDUNDIA: BASERRI BIDEAK	17.364,00 €	2,88%	27.000,00 €	6,20%
E.J.: ETXEBIZITZAK		0,00%	24.000,00 €	5,51%
SARRERA ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)	47.786,00 €	7,94%	73.000,00 €	16,77%
MAILEGUA	197.582,00 €	32,82%		0,00%
DENERA	602.061,00 €	100,00%	435.343,00 €	100,00%

GASTUAK	2017		2018	
	AURREKONTUA	%	AURREKONTUA	%
MAILEGUAK	72.156,00 €	12,80%	8.600,00 €	1,98%
UDALEKO LANGILEEN SOLDATA	146.077,00 €	25,91%	147.823,00 €	33,96%
HIRIGINTZA	10.000,00 €	1,77%	10.000,00 €	2,30%
OBRAK eta MANTENIMENDUAK	17.500,00 €	3,10%	17.500,00 €	4,02%
UR -ARGINDARRA-BEROGAILUA-HILERRIA	16.200,00 €	2,87%	15.200,00 €	3,49%
HONDAKINAK BATU, KUDEATU	21.200,00 €	3,76%	21.164,00 €	4,86%
ONGIZATEA + OSASUNA + JUBILATUEK	6.900,00 €	1,22%	4.500,00 €	1,03%
HEZKUNTZA PROIEKTUA	14.300,00 €	2,54%	10.000,00 €	2,30%
KULTURAREN SUSTAPENA ETA JAIK	12.000,00 €	2,13%	13.150,00 €	3,02%
EUSKERA	6.700,00 €	1,19%	10.300,00 €	2,37%
EKINTZA SOZIO-KULTURALAK	10.500,00 €	1,86%	12.100,00 €	2,78%
TURISMOA	29.500,00 €	5,23%	31.200,00 €	7,17%
ADMINISTRATIO OROKORRA	35.300,00 €	6,26%	34.800,00 €	7,99%
GASTU FINKOAK	398.333,00 €	70,66%	336.337,00 €	77,26%
ZERAINTZEN, S.A	41.970,00 €	7,44%		
GASTU FINKO OROKORRAK	440.303,00 €	78,10%		
BASERRI BIDEAK	24.806,00 €	4,40%	32.322,00 €	7,42%
BIDE BERDEA	26.063,00 €	4,62%		
BIODIBERSITATEA	29.598,00 €	5,25%	27.000,00 €	6,20%
AUZOEN INBERTSIOAK	4.000,00 €	0,71%	6.000,00 €	1,38%
ETXEBIZITZA SOZIALAK : AURREPROIEKTUA	39.000,00 €	6,92%	33.684,00 €	7,74%
GASTU ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)	123.467,00 €	21,90%	99.006,00 €	22,74%
DENERA	563.770,00 €	100,00%	435.343,00 €	100,00%

Sarrerak



Gastuak



Hainbat kontu azaldu nahi ditugu:

GASTU FINKOAK

- Eusko Jaurlaritzak onartutako soldata igoera aplikatu da.
- Hezkuntza proiektuko jaitsiera, taxi zerbitzuaren aldaketan datza. Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako zerbitzuak martxan jarraitzen du, Zeraingo eskolako ikasleena bakarrik aldatu da.
- Euskarako partidako igoera AEK-rekin egindako hitzarmen baten ondorioa da. Honi esker, Zeraingo herritar batzuk Euskara klaseak jasotzen dituzte (bai herrian baita kanpoan ere) eta Udalak (ikasleen

aprobetxamendu ona ikusita) matrikula osoaren kostua ordaintzea erabaki du.

- Gainerako partidek, turismoak eta jaiek esaterako, igoera txiki bat dute.

GASTU ALDAKORRAK

Aurreko urtean baina diru gutxiago gastatuko dugu, baina baserri bideen konponketa, biodibertsitatearen lanketa eta alokairurako etxebizitza sozialen proiektuak izango ditugu ardatz.

Urtean zehar laguntzaren bat jasoz gero, beste proiektu batzuk egiteko aukera izango genuke eta dagokion aldaketa egingo genuke orain onartutako partida hauetan.

SARRERA FINKOAK

2017ko itxiera jakin arte eta 2018rako proposamena ezagutu arte, igoera txiki bat bakarrik aurreikusi dugu aurreko urtekoarekin alderatuz.

SARRERA ALDAKORRAK

Orain arte onartutako proiektuen sarrerak besterik ez ditugu gehitu aurrekontuan.

2.3 2017ko diru laguntzak

2017an zehar jaso ditugun laguntzen eta proiektuen jarraipena:

ENTITATEA	ARLOA	PROIEKTUA	AURREKONTUA	DIRULAGUNTZA	EJEKUTATUA
EJ	HEZKUNTZA	ESKOLAKO SARRERA	10.579,02 €	6.564,34 €	EJEKUTATUA
	HEZKUNTZA	ESKOLAKO BEROGAILUA	11.579,02 €	6.947,41 €	EJEKUTATUA
	LANDA GARAPENA	ZERAIN-MUTILOA MEATZEGUNEKO BIDEA	62.123,84 €	EZEZTATUA	2017-2018
GFA	KULTURA	EUSKERA SUSTATZEKO PROIEKTOA	7.000,00 €	2.000,00 €	EJEKUTATUA
	LURRALDE OREKA	ZABALEGI POLIGONOA SARRERA	19.730,67 €	8.384,00 €	EJEKUTATUA
	LURRALDE OREKA	GOROSMENDI BIDEA	16.422,00 €	11.495,48 €	EJEKUTATUA
	KIROLAK	KIROL EKIPAMENDUAK- PILOTALEKUA	62.172,89 €	25.613,25 €	EJEKUTATUA
	KIROLAK	KIROL EKIPAMENDUAK- KARABANA GUNEA	71.028,33 €	EZEZTATUA	2017-2020
EJ	BIODIBERSITATEA	AIZPITAKO INGURUNEA	29.000,00 €	28.000,00 €	EJEKUTATUA
TOTALAK			289.635,77 €	80.620,48 €	

3. Batzordeen berri

3.1 Herri Bizitza

Jarraian hilabete hauetako ekintzak eta diru-kontuak azaltzen dira:

- Tobera Musika Eskolaren emanaldia

Azaroaren 16ean Tobera musika eskolako kalejira eta ondoren dantza emanaldia egin zuten Zeraingo plazan. Ondoren merienda eman zitzaien eliz atarian. (Meriendaren kostea 70 euro izan zen)



- Abenduak 3: Euskararen Eguna

Eguerdian udalaren kanpoaldean elkartu gera eta herriko errotulu berria bistaratu eta agurra dantzatu zaio eta ondoren errotuluaren aldaketaren inguruko testua irakurri da eta hamaiketako egin da frontoian.



2017ko EUSKERAREN EGUNA	IRTEERAK	SARRERAK	EMAITZAK
EROSKETAK HAMAIKETARAKO	88,63 €		
MANDIO TABERNA (6 ogi eta 2 patata tortila)	31,20 €		
TXISTULARIA	50,00 €		
	169,83 €	0,00 €	-169,83 €

● Gabonak



Goizeko 8.45ean autobus geltokian elkartu, eguerdian ordu eta erdiko deskantsua egin bazkaltzeko eta arratsaldeko 6ak aldera arte herriko auzo, baserri eta etxe guztiak kantuz girotu ziren.

Herritarrei eskerrak eman, eman duten laguntzagaritik eta bildutako dirua (1767.6 euro) hiru talderentzako izan da: Caritas, Etxerat eta OA elkartearentzat.



Iluntzean Olentzero etorri zitzaigun gaztina eta goxokian denentzat zituela eta herriko haur eta Uharka abesbatzak emanaldiarekin lagunduta.

2017ko GABONAK	IRTEERAK	SARRERAK	EMAITZAK
OLENTZEOREN ASTOA	0,00 €		
HAURRENTZAKO GOXOKIAK	35,00 €		
BAZKARIKO GASTUAK	77,75 €		
GAZTINAK	59,45 €		
CARITAS ELKARTEA/ETXERAT ELKARTEA	1.180,00 €		
KANTU ESKEA		1.767,60 €	
	1.352,20 €	1.767,60 €	415,40 €

● 2017ko Urtekaria

2017ko urtekaria, 30.urtekaria izan degu eta gai hori izan da gai nagusia. Horretaz gain; elkarrizketako zatian Euskerako ikastaroan ditugun ikasleei elkarrizketa egin zaie, urtean zehar herrian izan diren ekintza ezberdinak aipatu dira, kolaborazio ezberdinak, haurren marrazki eta idatziak...

Urtekariaren ale bana herriko etxe guztietara banatu da eta salgai jarri da Mandio denda eta tabernan eta Ostatu tabernan. Guztiei eskerrak eman nahiko genizkieke.



- **2018rako ekintzak**

- o **OAko urteko batzarra**

Otsailaren 7an arratsaldeko 18.30etan Kultur etxean izango da OAko urteko batzarra; bertan 2017 urteko ekintzen balorazioa eta emaitza ekonomikoak landuko dira eta 2018 urteko plangintza landuko da.

- o **Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna**

- Martxoak 8, osteguna.
- Iluntzean ekitaldia eta ondoren afaria Ostatun.
- Izena emateko Mandion eta Udaletxean.

HERRI BIZITZA BATZORDEKO BILERAK IREKIAK DIRA ETA HILEAN BEHIN LEHENENGO ASTEAZKENETAN IZATEN DIRA 18:30EAN UDALETXEAN.

3.2 Zerbitzuak, azpiegiturak, ingurumena eta hirigintza

Hilean behin izaten da bilera, ostegunetan arratsaldeko 18:00-19:30 bitartean. **2 bilera** egin ditugu azaroa eta urtarrila bitartean.

Hurrengo batzordeen datak: otsailak 22, martxoak 7, apirilak 12, maiatzak 10 eta ekainak 7.

Lantzen aritu garen proiektuak:

- **Frontoiko teilatua**

Nahiz eta hasieran proiektu hau ez zegoen 2017ko aurrekontuan jasota, Zerain-Mutiloako Meatzeguneko bide berdea egiteko diru-laguntza jaso ez dugunez, proiektu honetako diru partida frontoiko teilatua konpontzeko erabili dugu.


ENTITATEA	ARLOA	PROIEKTUA	AURREKONTUA	DIRULAGUNTZA
FORU ALDUNDIA	KIROLAK	KIROL EKIPAMENDUAK- PILÓTALEKUA	62.172,89 €	25.613,25 €



- **Aizpitako biodibertsitatea**

Laguntza hau 2016an jaso genuen 2016an eta 2017an zehar biodibertsitatea lantzeko. Orain dela 10 urte Aizpita inguruan egin ziren ibilbideak berritu eta egokitzeko erabili dugu. Egindako lanak orokorrean:

ENTITATEA	ARLOA	PROIEKTUA	AURREKONTUA	DIRULAGUNTZA
EJ	BIODIBERSITATEA	AIZPITAKO INGURUNEA	29.000,00 €	28.000,00 €









- **Baserri bideak**

ENTITATEA	ARLOA	PROIEKTUA	AURREKONTUA	DIRULAGUNTZA
FORU ALDUNDIA	LURRALDE OREKA	ZABALEGI POLIGONOA SARRERA	19.730,67 €	8.384,00 €
FORU ALDUNDIA	LURRALDE OREKA	GOROSMENDI BIDEA	16.422,00 €	11.495,48 €

Bi baserri bidetan egin dira konponketak. Ordainketa irizpideak ondorengoka izan dira (eta izango dira aurrerantzean): zati subentzionatu gabea erdibana ordaintzen da udalaren eta bide horren bizilagunen artean. Zabalegiko bidea zabaltzeko hondakin gunea kendu du Sasietak.





● **Etxebizitza sozialak errentan**

Otsailean zabalduko da aurre eskaerak egiteko epea. Aurre eskaera egiteko baldintzak ondorengoak dira:

- Errentariaren soldata gutxienez 3.000€-koa eta gehienez 25.000€-koa izatea.
- 18 eta 35 urte bitartean edo 70 urte baino gehiago izatea.
- Jabetzan etxebizitzarik ez izatea.

Prezioen simulazioa:

Etxebizitza		1	2	3	4	5
Metro kopurua		40 m	44,45 m	51,45 m	54,25 m	58,70 m
Etxebizitzaren prezio totala		32.301,60 €	35.895,15 €	41.547,93 €	43.809,05 €	47.402,60 €
Errenta hilabeteko (Errentariaren sarreraren arabera)	3.000 € - 9.000 €	85,60 €	95,12 €	110,10 €	116,09 €	125,62 €
	9.001 € - 15.000 €	110,09 €	122,34 €	141,61 €	149,32 €	161,56 €
	15.001 € - 18.000 €	127,32 €	141,49 €	163,77 €	172,68 €	186,85 €
	18.001 € - 22.000 €	146,70 €	163,02 €	188,70 €	198,97 €	215,29 €
	22.001 € - 25.000 €	177,66 €	197,42 €	228,51 €	240,95 €	260,71 €

Adibidea: 51 metroko apartamentu batek sarrera txikiaren tartean dagoen pertsona batentzat 110€-ko errenta izango luke. Apartamentu bera berriz, sarrera handieneko tartean dagoen pertsona batentzat 228€-ko errenta izango luke.

● Zeraingo plazan Errementari eta Serorategi birgaitzea

Aspaldiko proiektu hau aurten Leader berri bat martxan jarri dela baliatuz diru laguntzetara aurkeztu dugu.

Lehen eta bigarren faseen aurrekontua: 432.783,23 €

Orain arte eskatutako diru laguntzak:

- Leader	291.090 €
- E.J. Ondarea	100.000 €
- Landaola	30.000 €

● Zuntz optikoa

laz zuntz optikoa iritsi zen herrira eta hainbat etxeetan zerbitzua jarri zuten. Baina badira oraindik interesatuta daudenak baina lortu ez dutenak. Gestioak egin ahal izateko udalak informazioa eskatu du etxeetara bidali duen orriaren bidez. Jasotako informazioa ondorengoa da:

				NAHI DU	
AUZOA	ERANTZUN KOPURUA	BADU	EZ DU	BAI	EZ
IRUKARATE AUZOA	3	1	2	2	
OTATZA AUZOA	6		6	6	
LAIOTZ LASUSTI AUZOA	3	1	2	2	
BARBARI AUZOA	2		2	2	
GOROSMENDI AUZOA	1		1	1	
ZERAIN GUNEA	9	6	3	2	1
GUZTIRA	24	8	16	15	1

Hurrengo asteetan gestioak egingo ditu udalak Telefonicarekin 15 eskaera horiei irtenbidea bilatzeko.

● Hariztibarreneko obra bukaera

Duela 5 urte hasitako obra da. Arazoak egon dira lur eremuarekin (katastroan akatsa). Eraikitakoaren zati bat Gipuzkoako Foru Aldundiaren lurrean eraiki da eta bestea Udalaren Elizatze partzelan.

Gauzak horrela obra bukaera emateko hitzarmena sinatu da udala eta familiaren artean:

- Elizatzeko proiektuan (etxebizitza sozialak) zehazten denaren arabera, egin dutena egokituko dute.
- Onartutako proiektuan planteatuta zeuden 2 farolak jarri ordez, bidearen beste aldean dauden biak udalak egiten duen proposamenaren arabera egokituko dituzte.
- Gipuzkoako Foru Aldundiari lurra erosiko diote.

● Ostatu eta Mandio

Itxialdiak:

- MANDIOA

Urtarrilaren 29tik otsailaren 4era.

(Urtarrilaren 29tik otsailaren 2ra goizez irekita)



- OSTATUA

Otsailaren 5etik otsailaren 28ra.

- **Mandioa**

Aldabe kooperatibak Mandio tabernaren gestioa uzteko asmoa agertu du.

Taberna gestionatzeko lehiaketa martxan jarriko da.

3.3 Tokiko Garapena

Hurrengo bilera OTSAILAK 15, osteguna, goizeko 11etan izango da UDALETXEAN.